DBH 1B



AURKIBIDEA

IPUINAK

ZER GERTATUKO LITZATEKE...

1. Kolonek ez balu Amerika konkistatu?

2. Nekazaritza eta abeltzaintza ez balira existituko?

3. Demokrazia asmatuko ez balitz?

4. Kolonek ez balu Amerika deskubritu?

5. Erromatar inperioa existituko ez balitz?

6. Erromatar inperioa inoiz erori ez balitz?

7. Egipziarrek Iberiar penintsula konkistatuko balute?

8. Frantziako Iraultza gertatu ez balitz?

9. Idazkera asmatu ez balitz?

10. Armak sortu izan ez balira?

11. Armak ez balira inoiz asmatu izan?

12. Nekazaritza eta abeltzaintza desagertuko balira?

13. Animaliak desagertuko balira?

14. Erromatar inperioa ez balitz eroriko?

KOMIKIAK

Zer gertatuko litzateke Colonek ez balu Amerika konkistatu?



Ozeano Atlantiko Colonen barkua. 1492ko urriaren 12a. Duela 800 bat urte gertatu zen. Egun lasai bat zen eta gertakaritik gero eta gertuago zeuden, baina ez zekiten. Azkenean iritsi zen espero ez zuten eguna. Dena normal zihoan eta denak lanean zeuden Colón izan ezik.
Olatu bat sartu zen, inorrek ez zuen espero.

Olatuak barkuaren kontra jo zuen eta Colón uretara erori zen. Azkar-azkar laguntza eske hasi zen eta ziztu bizian tripulazio osoa laguntzera joan zen Luffy izan ezik. Tarte horretan mailu-marrazo batek kosk egin zion. Azkenean lortu zuten Colón uretatik ateratzea, baina berandu zen; oso gaizki zegoen.

Colonek bueltatzeko esaten zuen baina Luffyk ezetz eta momentu hartan garrasika hasi zen:



-Lurra! Lurra!

Orduan Colonek ezin zion ezetz esan eta zuzenean lurrera joango zirela esan zuen. Tripulazio osoa martxan jarri zen eta lurrera abiatu ziren.

Colón oso gaizki zegoenez ohera joan zen, baina argi zuen, lehena izan behar zuen lur hura zapaltzen. Ikusten zuena ikusita oso lur handia zen. Azkenean Colón lo geratu zen eta Luffy izan zen lehena lur hura zapaltzen.
Colón esnatzean konturatu egin zen Luffy izan zela lehena lur hura zapaltzen eta preso hartu zuen baina konturatu zen lur horretan herritarrak zeudela. Oso haserre jarri zen eta esan zuen lurralde hura bere menpe egongo zela, hau da, diktadore izango zela eta desagertu egingo <irela esan zuen. Jende guztia garrasika hasi zen eta Colonek barre beldurgarri bat egin zuen.



Luffy hori ikustean, saiatu zen kaiolatik irtetea eta lortu zuen baian beran zen. Colonek ordurako bi pertsona hil zituen eta ezpata bat atera zuen. Luffyk esan zion sentitzen zuela lur hori lehen pertsona izateagatik zapaltzen eta ea merezi zuen beraz gogoratzea diktadore bezala eta pertsona zikizn baten moduan. Colonek, noski, ezetz esan zion eta orduan esan zuen esango zuela berak lurralde berri bat aurkitu zuela eta Amerika deituko zela.

Hortik aurrera mapetan Amerika agertzen da eta Colón eta bere tripulazioa ezaguna egin zen baina Amerika aurkitu zuelako eta ez pertsona zikin bat bezala.

Aratz Alonso



Orain dela urte batzuk, bazen neskato txiki bat Mara izenekoa. Marari gauza asko gustatzen zitzaizkion, adibidez, bere atita, Eneko eta bere neba handia, Beñat ehiara joaten zirenean haitzuloko paretetan animaliak margotzea gustatzen zitzaion: Bisonteak,zaldiak,mamutak,oreinak... Horrez gain, bere amak, Eiderrek, egindako animali larruzko arropak probatzea gustatzen zitzaion.

Baina gehien gustatzen zitzaiona, bere amarekin haziak landatzea zen. Aspertuta zeudenean, kanpora atera, eta bere amak bilduta zituen haziak landatzen zituzten. Beti izaten zuten esperantza landare horietatik fruituren bat aterako zela, baina inoiz ez zen hala gertatzen. Mararen ametsa beti izan zen animaliaren bat etxean edukitzea, baina inoiz ez zuen lortuko garai hartako animaliak oso arriskutsuak zirelako kobazuloetan edukitzeko.


Neguko egun hotz batean, Mararen ama, Eider, bere alabarentzako arropa egiten ari zen mamut baten larruarekin. Bere aita, Eneko eta bere anaia, Beñat ehizan zeuden eta bera, aspertuta, haitzuloaren

sarreran suari begira zegoen. Bat-batean, haitzuloaren sarreratik basakatu txiki bat pasa zen. Mara berari begira gelditu zen, txundituta bera jarraitzea erabaki zuen. Mararen ametsa betidanik animalia bat edukitzea zenez, basakatu hori berarentzat nahi zuen. Basakatuari jarraitu zion nekea sentitu arte. Iluntzen ari zen, hotza egiten zuen, eta Marak ez zekien zer egin ezta nora joan. Galduta zegoen.

Egun hortan bertan bere aita, bere anaia eta tribuko pertsona asko ehizatik bueltatu ziren. Eider asko poztu zen bere semea eta bere senarra ikustean, eta Mararen bila joan zen berri ona ematera. Mara inon agertzen ez zela ikusirik larritzen hasi zen eta Mararen bila jarraitu zuen. Eiderrek denei kontatu zien Mara ez zegoela inon eta denak batera kanpora atera ziren Mararen bila.

Mara hotzez hiltzen ari zenez, kobazulo batera sartzea erabaki zuen. Elurrari begira zegoen eta bat-batean lurrera erori zen konortea galduta. Denak Mararen bila zebiltzan bitartean, Beñatek Mararen larruzko bota aurkitu zuen lurrean botata. Botaren ondoan bere oinatzak zeuden, Beñatek oinatzak jarraitu eta haitzulo batera iritsi zen. Kobaren barruan bere arreba ikusi zuen lurrean botata. Besotan hartu eta beraien kobaraino eraman zuen. Egunak pasa ahala, Mara bere onera itzuli zen eta bakoitzaren bizimodua normalitatera itzuli zen.





ZER GERTATUKO LITZATEKE... DEMOKRAZIA ASMATUKO EZ BALITZ?

MARKEL ANDUEZA JIMENEZ

Bazen behin, Antzinaroan, zehazki k.a 512. urtean, Atenasen Clítenes izeneko haur bat jaio zen. Haur hura hazi ahala oso azkarra zela oso azkarra zela ohartu ziren, hain zen azkarra 5 minutu eskasetan 10 kilometro egin zitzakeela... Azkarra modu horretan bakarrik ez ikasketetan ere oso azkarra zen inguruko azkarrena.

Oraindik ume bat izan arren, gobernatzeko beste modu batean sinesten zuen. Modu horretan herriak edukiko zuen boterea hortik bere izena: DEMOKRAZIA Demokrazian gehiengoak nahi duena egingo luke eta lehendakaria bozkaz aukeratuko litzateke. Handiago zenean Clítenesek erabaki zail bat hartu behar izan zuen: kirol aldetik joan edo politika aldetik. Asko pentsatu ondoren politika aldera jotzea erabaki zuen. Bere ideia demokratikoaren bidez Grezia osoko lehendakaria izatea iritsi zen era demokrazia ezarri zuen.

Jendeari ez zitzaion aldaketa gustatu. Orduan diktadore batek herritar batzuen laguntzaz estatu golpe bat jo zuten lehen egiten zen modura demokrazia suntsituz. Horrez gain diktadore berriak bi aukera eman zizkion Clíteneseri, bata bizi osorako esklabo izatea eta bestea herriko plaza erdian exekutatua izatea. Clítenesek libre izan nahi zuen eta bi aldiz pentsatu gabe bigarren aukera hautatu zuen.

Eguna iristean plaza betea zegoen eta momentua iritsi zanean justu tximista bat bat erori zen hil behar zuten lekuaren ondoan guztia suntsituz. Clítenes ihes egiteko une ona zela ohartu zen eta azkar batean handik hanka egin zuen.

Bere kiroletarako gaitasuna baliatuz Kroaziara joan eta kirolaria egin zen. Ahala ere guztia eduki arren Clítenes ez zen zoriontsu ez zuelako bere ametsa bete: Demokrazia betirako ezartzea.

Handik aurrera dena beti bezala jarraitu zuen, diktadoreak zuen boterea eta ez zegoen askatasun haizerik ezta botaketarik.

ZER GERTATUKO LITZATEKE COLÓN-EK EZ BALU AMERIKA DESKUBRITU?

Bazen behin Elkano izeneko zientzilari bat Getarikoa (Gipuzkua, Euskal Herria) 1491-ko abenduaren 11 zen eta Elkano buruari bueltaka zebilen ea beste lurralderik egongo zen itsasoaren urrutian.

Ideia bat bururatu zitzaion.

-Bidaia bat egiten badut lurralde baten bila?

-Bihar esango diet nire lagunei! -pentsatu zuen Elkanok.

Elkano pertsatzen ibili zen gau erdiraino.

Hurrengo egunean, lagunekin elkartu zen plazan eta ideia kontatu zien.

-Ni prest!-Ni ere bai! -Erantzun zuten bere lagunek.

-Ba bihar eguzkia irtetean plazan. -esan zuen Elkanok.

Elkano beste behin gau guztia ikertzen ibili zen eta iada goiza iritsi zen eta 8 lagunak plazan Elkartu ziren.

-Hi Elkano! Lo aurpegia duk! Kar Kar Kar! -esan zuten lagunek.

-Hi ixo, goazen oraintxe bertan barkua prestatzera! -esan zuen Elkanok.

8 lagunak barkua prestatzen ibili ziren 2-3 hilabete inguru. Egun osoa lanean ibiltzen ziren jotake. Getaritik ateratzeko eguna pentsatzen hari ziren.

-Larunbatean aterako gara!-esan zuen Elkanok.

-Bai, bai. Zu lasai, Elkano. -Erantzun zioten taldekideek.

Talde osoa irrikan zegoen larunbata iristeko... Azkenean larunbata iritsi zen eta herri osoa Getariko portuan zegoen.

-Elkano! Elkano! Elkano! -ohiu egiten zuten herritarrek.

-Ondo izan eta zorte on! -esaten zuten herritarrek.

Getariko portutik irten ziren, orduak pasa ziren eta ez zuten ezer aurkitu.

-Hi, Elkano hemen ez zegok ezer ez. -esan zion taldekide batek.

-Bai, bai, bai, zenbait egon beharko duk. -erantzun zion Elkanok.

3 hilabete pasa ziren eta ia berriro Getarira itzuli nahi zuten baina...

-Lurra! Lurra! Lurra! -esan zuten pozik.

Lagunak barkutik jaitsi ziren eta ez zekiten non zeuden. Ezer ere ez jakin gabe lurraldea "mantentzen" hasi ziren eta kanal (erreka) handi batera iritsi ziren eta jendea ikusi zuten. Tribu Afrikar bat!

-Zeintzuk zarete zuek? -galdetu zuen Elkanok.

-Gu Afrikarrak eta zuek? -erantzun zion Mufasak.

-Gu Euskal Herrikoak. -berriz Elkanok.

Eztabaidan ibili ziren -Amerika- beraiena zela, azkenean bi zatitan banatzea aukeratu zuten Ipar Amerika eta Hego Amerika. (iparraldea Euskaldunak eta hegoaldea Afrikarrak).

Gaur egun YORUBA izkuntza eta EUSKARA oso aberatsak izango ziren eta Ameriketan, Yoruba eta Euskara itzegingo ziren.







ZER GERTATUKO LITZATEKE ERROMATAR INPERIOA EXISTITU EZ BALITZ?

Antzinaroa, Iberiar Penintsula.



Bazen behin, Link izeneko heroi bat. Egun batean, basotik zebilela, lurrean paper bat aurkitu zuen. Paperean hau idatzita zegoen: “Link, Zelda naiz, Ganonek bahitu egin nau. Lagundu!”. Link korrikan atera zen Zeldaren herrirantz.

Herrira sartzeko, ibai handi bat zegoen. Igeri egiten joan zen beste aldera. Baina korrontea oso handia zen era eraman egin zuen. Kobazulo batean esnatu zen. Aurrean pertsona bat zuen.
-Kaixo, Majora naiz. Sendatu egin zaitut. Joan Zelda salbatzera
Link kobazulotik atera zen, baina herrian galdu zen, etxeak oso gaizki ordenatuta baitzeuden, eta etxe guztiak antza handia baitzuten.

Korrikan hasi zen, nora zijoan jakin gabe, baina bidean harri asko zeuden eta erori egin zen. Altxatu egin zenean, gorantz begiratu zuen, eta “Ganon” jartzen zuen eraikin bat ikusi zuen.

Orain bai, galdu gabe, eraikinera iritsi zen. Atea ireki zuen eta Zelda ikusi zuen. Aulki batean lotuta zegoen, soka batzuekin. Bat-batean, Ganon agertu zen.
Zelda oso jatorra zen, eta salbatu egin behar zuen.

Bere eskuak erakutsi, eta Ganonekin borrokatu zen. Linkek irabazi zuen, eta Zelda askatu zuen.
-Eskerrik asko Link-esan zuen-oso pertsona ona zara, misteriotsua, baina heroi bat.



Bakoitza bere etxera itzuli zen, deskantsatzera. Ganon altxatu egin zen. Zeldaren etxera joaten saiatu zen, baina minduta zegoen, eta gainera, galdu egin zen. Ibaia ikusi zuen, eta Link bahitzea ideia ona iruditu zitzaion. Ibaia pasatzen saiatzean, korronteak Ganon eraman zuen.

Ganon indarrik gabe gelditu zen, eta azkenean, hil egin zen, ibaian zijoala harri batzuen kontra talka egitean.

Majorak guztia ikusi zuen, eta Link eta Zeldarekin hitz egin zuen.
-Ganon hil egin da, harri batzuen kontra talka egitean-esan zuen Majorak.
Egia da! Ahaztu egin zitzaigun Ganon oraindik eraikinean zegoela!-esan zuen Zeldak.
-Ganonek bakarrik atentzioa deitu nahi zuen, eta bere gauza txarrengatik horrela bukatu du-esan zuen Majorak.

Handik aurrera pozik bizi izan ziren.

Julen Bodego





Zer gertatuko litzateke Erromatar inperioa inoiz erori ez balitz?



K.a 753, Erroma sortu da.

César agintariak Europa konkistatzeko asmoa du. Badago errepublika ezartzearen aldeko jendea ere, baina ez dira pertsona nahikoak Erroman errepublika ezartzeko. Errepublikaren aldeko jendea poliki-poliki herritarrak konbentzitzen ari dira César konkista estrategia pentsatzen ari den bitartean. Errepublika aldeko jarraitzaileek denbora luzez kexatu ondoren ezinezkoa dela ikusi dute. Orduan gehiago ez saiatzea erabaki dute, baina bertako bi gizonek ez zuten amore eman: Marco-Junio-Bruto eta Cayo-Casio-Longino. Beraiek armada bat sortu zuten.

K.a 750, César hil da.

Jendeak oraindik ez zekien nola hil zen Julio, baina orduan mutil gazte batek Julioren hilketa ikusi zuela esan zuen. Mutila estatua batera igo zen eta denak isilik geratu ziren. Mutilak honakoa esan zuen:

-Errepublikaren aldeko armada batek hil zuen César. Momentu batez denak isilik geratu ziren eta ez zuten sinistu. Baina Césarren laguntzaile batek mutilari sinisteko esan zuen, egia zela esanez.





Erromak ordurako Europaren zati bat konkistatua zuen baina, César gabe gehiago konkistatzea edo honezkero zutena mantentzea zaila izango zela bazekiten, orduan lege bidez Césarren seme adoptiboa jarri zuten Erromako enperadore.

K.a. 740 Augusto errege eta Erromak Europa konkistatzen jarraitzen zuen.

Augusto (Césarren seme adoptiboa) enperadore bezala jarri ondoren, errepublikarrak hil ondoren... ia Europa guztia konkistatu zuen Erromak, Euskal Herria barne.

K.a. 780 Euskara galdu egin da.

Denbora luze bat gauza askorik gertatu gabe jendea latinez hitz egiten hasi da behartuta. Euskaldunek Euskara galdu ondoren eta beste herrialdeek ere Europa osoak latinez hitz egiten du



Markel.g



Zer gertatuko litzateke egipziarrek iberiar penintsula konkistatuko balute?



K.a. 2000 Bazen behin, Gizako esfingearen azpian mahai baten inguruan Rá, Anubis, Osiris, Horus eta Isis izeneko jainko jainkosak. Faraoi bat ere bazegoen, Kleopatra. Mahai horren inguruan plan bat ari ziren egiten, Julio Cesar hiltzeko, horrela Egipziarrek botere guztia edukitzeko. Plana Julio Cesar espiatzea zen gero hiltzeko. Kleopatra zen espiatzera joan behar zuena.

Egun batzuk geroago Cesar konturatu egin zen; orduan, Kleopatra atxilotu eta giltzapetu egin zuen beranduago krokodiloetara botatzeko. Beste guztiek Kleopatra salbatzera joan behar zuten, baina armada bat zegoen atea zaintzen. Geroago Osiris heriotzaren jainkoak, armadako guztiek hil egin zituen. Barrura sartu ziren jainko jainkosa guztiak eta Kleopatraren bila joan ziren, ez zuten aurkitzen baina azkenean Isis jainkosak Kleopatra aurkitu zuen. Kleopatra giltzapetuta zegoenez Anubis inframundoko jainkoak barroteak apurtu zituen eta ihes egin zuten. Baina ihes egin baino lehen, Cesar hil egin behar zuten. Mendi puntara iritsi ziren, Cesar zegoen tokiraino, eta Osirisek hil egin zuen bere heriotzaren botereekin.

Aste bat pasatutakoan munduan botere handia zutela konturatu ziren, eta Iberiar Penintsula konkistatzera joango zirela erabaki zuten. Tropa Egipziarrak osatu zituztenean Iberiar Penintsulara joan ziren. Bidaia hori hasi bitartean, Erromatar soldaduek pergamino bat aurkitu zuten, Horusek galdutako eskutitz bat zen. Hieroglifikoz zegoen idatzita; orduan, egunak kostatu zitzaien deszifratzea. Deszifratu zutenean gerra bat sortzera joan ziren Erromatarrek Iberiar Penintsulara. Momentu berean Egipziarrek haien bidaia hasi zuten.


Erromatarrak Egipziarrak baino lehenago iritsi ziren aurkaria sorpresaz harrapatzeko asmoz. Gerra horrek 25 urte iraun zituen. Gerra hori Egipziarrek irabazi zuten, eta Iberiar Penintsulan izan zenez esklabotzat hartu zituzten Iberiar Penintsulako jendeari eta Erromatarrak ere.

Azkenean Egipziarrak mundu osora zabaldu ziren eta urteak joan ahala jainko jainkosak hiltzen joan ziren, beste unibertso bat konkistatzera joateko.



Olaia Gallardo Mendia

Frantziako Iraultza Gertatuko Ez Balitz...



Bazen behin, Aro Modernoko XVIII. mendean, Sestaon, familia xume bat, bi alaba zituena, Ainhoa eta Lur. Ipuin honetako protagonistak haiek dira, beraien gurasoak nekazariak ziren, eta errege-erreginen ondorioz herritar guztiek betetzen zuten beraiek agindutako guztia, bestela ondorio oso larriak jasotzen zituzten, adibidez, tortura publikoa eta ezkutukoa. Gizartea ez zegoen batere ondo antolatua, erregeek bakarrik zuten kalitatezko bizi bat, baina Ainhoak eta Lurrek ezin zituzten beraien gurasoak horrela ikusi, batez ere Ainhoak, berak ulertzen zituen, zaharrena baitzen, berak egiten zituen lanak legeen ondoriz.





Baina Lurrek, ausartenak, hori eragotziko zuela esan zuen Ainhoaren aurrean, eta honek hau erantzun zion

-Ez Lur, hori oso arriskutsua da, etxea zaidu behar dut.

-Baina egun batzuk izango dira, gurasoek ez dute zertan jakin. Erantzun zion Lurrek.

-Ondo dakizu gurasoek laguntza beharko dutela. Ainhoak gurasoak defendatuz.

-Guk gizartea aldatzen badugu ez da hori gertatuko. Esan zuen Lurrek belarri batetik besterainoko irribarrearekin.

-Ondo da, baina bi egun soilik. Ainhoak nekatu aurpegiarekin.

-Hasi dadila abentura, ekin diezailogun! Ohiukatu zuen Lurrek pozez txoratzen. Hasteko moilara abiatu ziren zaldi lapurtu batekin, barku batean izkutatu eta Frantziara abiatu ziren. Zaldia atera behar zutenean Lurrek hau esan zuen.

-Itxaron, itxura honekin beste eremu batera eramango gaituzte! Egia da! Konturatu zen Ainhoa. Lur goiko pisura igo zen, eta lehenengo ikusi zuen gizona heldu eta komunera eraman zuen. Ainhoak jostorratz bat aurkitu zuen eta bi traje lortu zituen. Atera zirenean Lurrek zaldi bati montura kendu eta haienari jarri zion . Konturatu zen lapurtutako

zaldiak ez zuela izenik, Ipsi deituzuen. Korrika, Parisera joan ziren, Concordia plazara. Maria Antonieta eta Luis XVI ikusi zituzten haizea hartzen plaza inguruan eta plazan haiek iltzeko ados zegoen jendea bilduta, korrika joan ziren erregea eta erreginaren aurka soldaduak zapaldu zituzten eta beste herritar guztiak elkartzen joan ziren. Lehenengo Luis XVI hil zuten eta ondoren Maria Antonieta hil behar zutenean erori egin zen herritar baten gainera eta hauek izan ziren bere azken hitzak:

-Barkatu, ez dut nahita egin. Horren ondoren, bi umeak herri guztiaren salbetzaie izan ziren, nork esango zuen bi umeek giza eskubideak hobetuko zituela?

AMAIERA



ZER GERTATUKO LITZATEKE IDAZKERA ASMATU EZ BALITZ?

K.a. 3000




Bazen behin, Puabi izeneko neskato bat eta oso argia zenez dena miresten zuten. Bere etxean zegoen liburu bat irakurtzen, ohera joateko prest. Ohera joatear zegoenean, bere logelako leiho bat apurtzen entzun zuen, eta biratu zenerako bahitzailearen eskuetan zegoen, ahoa estalita.

Bahitzaileak bere etxetik atera zuen Puabi, Iraketik ahalik eta gehien urruntzeko asmoarekin. Bere gurasoek, konturatu ez zirenez, ez zuten bahitzailea gelditu.

Bahitzaileak Puabi menditik eraman zuen eta hondartza galdu bat ikusi zuten. Bahitzailea ikaragarri poztu zen ideia zoragarri bat bururatu zitzaiolako; barku bat eraikitzea eta uharte galdu batera joatea.

Hondartzan barku zahar bat ikusi zuten eta bahitzaileak material ezberdinak biltzen jarri zuen Puabi barkua berritzeko asmoarekin: hostoak, egurra etab. Material nahikoa bildu zuenean, barkua berritzen jarri ziren.
Barkuan uharte baten bila hasi ziren eta bahitzaileak bat aurkitu zuen urrutian.



Uharte horretara iritsitakoan Puabi zuhaitz batera lotu eta janaria bilatzen hasi zen bahitzailea. Bitarte horri Puabik, An jainkoari laguntza eskatzeari jardun zion. Bat-batean bahitzailea garturatu zitzaion eta galdera bat egin zion.

-Aizu neskato, zu oso argia zarenez, jakingo duzu harrizko tresnak egiten, ezta?

-Bai noski, txikitatik jardun dut harrizko gauzak egiten.

-Orduan egingo dizkidazu tresna batzuk?

-Baina zergatik egingo nizuke nik mesede hori bahitu egin banauzu?

-Tira, mesedez, janaria lortzeko dela.

-Ados, baina askatu zuhaitzetik.

-Bai, baina egin tresnak.

Momentu hartan bahitzaileak eskuak askatu eta harri mordoa eman zizkion. Puabi tresnak egiten hasi zen eta harri batzuk berarentzako gorde zituen.

Iluntzen hasi zen eta bahitzaileak Puabik egindako tresnak hartu eta ehizatzen hasi zen guztiz ilundu baino lehen.

Bitartean Puabik, gordetako harriak hartu eta bere etxean zituen objektuen forma ematen hasi zen harri bakoitzari. Oso trebea zenez, nahiko azkar bukatu zuen eta ontzi batean sartuta, itsasora bota zituen.

Bere asmoa bere familiarengana iristea eta hor zegoela jakitea zen eta horrela izan zen.

Egunak joan ahala bere familia mezua deszifratzen joan zen. Deszifratu zutenean barku bat bidali zuten Puabi bueltan ekartzeko, aurkitu zutenean bahitzailea torturatu eta ondoren giltzaperatu zuten,

Ordundik objektuen formekin idazten hasi ziren eta ondoren hieroglifiko bihurtu zituzten idazkera sortuz.



Maier Mendizabal Jauregi

Zer gertatuko litzateke armak sortu izan ez balira?



1337. Erdi-aroa.

Inglaterrakoek ez dute ezer elikagaiak lortzeko eta Galo erreinua konkistatzera doaz. Haiek alimentu asko dituztelako. Iristerakoan Frantsesak nahi berdinarekin zeuden hau da (Galo erreinua alimentuak lortzeko). Enriue V inglaterrako agintzaria eta Harlos VI Frantziako egintaria, bien artean Galo erreinua lortzeko gerra bat egongo dela adosten dute.

Urte bat gerran egon eta gero, bi erregeek hau adosten dute:

-Kaixo, Harlos.

-Kaixo, Enriue.

-Gaur askeneko eguna izan behar du: elikagaiak bai ala bai behar ditugu.



-Bai, guk ere bai eta, gainera, gure soldaduak hiltzen ari dira.

-Orduan gaur irabazten duenak Galo erreinuaren jabe izango da!

-Bai, hori da!

Arratsaldeko bostetanazken borroka hasi zen. Orduak borrokan egon eta gero, bi erregeek elkarrizketa bat eduki zuten. Biek elikagaiak baiala bai behar zituzten eta bien artean, bi herrialdeentzat geldituko zela erreinua erabaki zuten. Biek behar asko zutelako eta bien artean Galok zituen elikagaiekin behar zutena lortuko zutelako. Hildakoak egon gabe eta hasarraldirik egon gabe. Hortik aurrera bi armaden artean dena ondo joan zen. Beraien artean elkar laguntzen zuten. Erreinua bi erregeek eramaten zutelako.

Urteak eta gero, Europara zabaldu zen gertatu zena eta erdi-aroa zenez, ehundaka gerrate zeuden elikagaiak lortzeko. Herrialde horiek Inglaterrak eta Frantziak egin zutena ezagutzerakoan gerrate guztiak geratu egin ziren, denak denon artean laguntzeko. Europatik, Ozeania, Asia eta Afrikara iritsi zen gertatu zena eta gerrate guztiak geratu egin ziren. Hori eta gero, hurrengo belaunaldietan, ez zen gerra gehiago egon eta gizartea betirako lasai egon zen. Gerra horri "MUNDUA ALDATU ZUEN GERRA" deitu zioten.





Eki Oiartzabal Amenabar

Zer gertatuko litzateke...

ARMAK EZ BALIRA INOIZ ASMATU IZAN?

Ka VII-IX (Ka 800. urtea)

Bazen behin, beste dimentsio batean, herrixka bat non armak ez ziren inoiz asmatu.

Herri horretan Markus izeneko mutiko bat bizi zen. Markus hazten joan zen, eta mutil guztiak bezala adin batera iristekon, borrokan ikasi behar zuen soldatu izateko, baina, kasu honetan, ez da ezpatak edo pistolekin, kasu honetan borrokatzen ikai behar zuen, baina berak ez zuen nahi armadara joan, borrokarik gabeko mundua posiblea zela uste baitzuen.

Bere urte betetze egunean aitari ez zuela nahi armadara joan nahi, baina bere aitak horrela erantzun zion:

-Zu Intxurreko ohorea zara, eta beste guztiak bezala joango zara.

-Eta zu Intxurreko buruzagia zara eta herritar guztiak gustura egotea da zure ardura. - Esan zuen Markusek buruarekin ezetz esan bitartean eta bere gauzak hartuz.

-Nora zoaz? - esan zuen Maximus (aitak).

-Herritik kanpo ez naiz zure esklaboa. -esan zuen atetik irten bitartean.

-Baina bai zure aita- esan zuen berak. Markus, haserre, azken hitz hauek esan zituen:

-Bizitza kondaira bat bezalakoa da, berdin du luze izatea, ondo kontatu bada.

Orduan, Markus plazara joan zen, trukeak egiteko egun aproposa baitzen. Markusek truke batzuk egin zituen eta horrela lortu zituen basoan bizitzeko dendatxi bat, janaria eta ura filtratzeko gailu bat. Trukeak egun bitartean, neska bat ezagutu zuen, berak ere ihes egin nahi zuen. ezkontzera Behartuko zutelako. Biak basora joan zire.

Urte pare bat pasatu ondoren, ume bat eduki zuten eta hor erabaki zuten herrira itzuli beharko zutela umea osasun hazteko. Herrian zeuden bitartean borrokari egitea utzi zioten eta gehiago hitz egiten hasi ziren, Markus eta belora ikustean. Bi horiek bizitza bat eduki zuten, borrokarik gabe, zauririk gabe. Baina zoritsarrez Markus eta belora banatu zuten, Belora ezkontzera behartuz. Camila, berriz (umea), Belorarekin gelditu zen. Urte asko pasa ziren, 7 edo 8, eta Beloraren senar nazkagarria hil zen. Belora txikitako herrira joatea erabaki zuen eta han ez zuen sinisten ikusten zuena. Markus zen, plaza, aulki batean exerita, poz-pozik. Belora eta Camila ikustean, irrifarre hori bere aurpegitik ezabatu eta tristura eta alaitasunezko nahasketa bat marraztu zitzaion. Beraien gana joan eta basarkada handi bat eman zion, ezkondu eta Intxurrek betirako gogoratu zioten bi esandi hauekin: “Bizitza kondaira bat bezalakoa da, berdin du luze izatea, ondo kontatu bada” eta Familia beti lotuko du berriro elkarrekin egotea”

LUCÍA SANTOS

ZER GERTATUKO LITZATEKE NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA DESAGERTUKO BALIRA?



Duela urte asko, k.a. 8000 . urtean, lehorte bat egon zen, eta horren ondorioz, nekazaritza eta abeltzaintza suntsitu egin ziren. Lehortea gertatu zen lekuan, bazegoen tribu bat: lau ziren, horietako bat Arka zen, bera zen tribuan agintzen zuena. Horietako beste bat Tila zen, ehizatzeaz arduratzen zen, eta Serak eta Danuk nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduten zuten. Beraiek bizi ziren lekuan, ibai txiki bat zuten, paisaia nahiko menditsua zen, belardi batzuekin animaliak elikatzeko. Klima aldetik, nahiko epela eta euritsua zen eta biztanleen aldetik tribu txiki batzuk besterik ez zeuden. Tribuko kideak ehizatzera joaten ziren, gehienetan Tila, baina konturatzen ziren, taldelanean errazago egiten zutela. Arrantza ere egiten zuten ondoko ibai txikian. Ehizatzeko eta arrantza egiteko, adibidez, beraientzat, oso garrantzitsuak ziren aizkorak, igitaiak eta horrelakoak egitea, tresna horiek arrantzarako edo ehizatzerako orduan asko errazten zielako. Harrietan ere marrazki sinpleak eta txikiak egiten zituzten tribuen nortasuna adierazteko. Horrez gain, beraien kulturan sendabelarrak egiten zituzten, naturatik jasotako belar eta landareak ziren, zaharren ezagutza handia eta tribuko bizitza babesteko. Baina lehortea etorri zenean, nekazaritza eta abeltzaintza desagertu egin zirenez, beste gauza batzuk behar zituztela konturatu ziren bizirik jarraitzeko, baina leendabizi arazo potolo horri konponbide bat aurkitzea erabaki zuten.

Denbora dezente egon ziren beraien artean ideiak ematen, eta momentu batean, Arkak ideia bat esan zuen. Arkak proposatu zuena ibai txikitik soroetara ubide txikiak eraikitzea izan zen. Besteak itxaropen gutxirekin, ubideak eraikitzen hasi ziren. ubideak egiten bukatu zutenean, Arkak, putzu txiki eta nahiko sakon bat topatu zuen eta Sera eta Danuri ura, beraiek egindako biltegietara eramateko agindu zien. Konponbidea bilatzeko jarduerak bukatu zituztenean, lehorte horretatik babesteko etxebizitzak egiten hasi ziren. Lehorte horren erruz bertan zegoen belardi batek, sua hartu zuen, eta horren ondorioz, konturatu ziren sua bazegoela. Denbora dezente pasatu zenean, ohartu ziren, beraien urbideek funtzionatu zutela, eta horrez gain, biltegietan gorde zituzten ur litroek asko lagundu ziela lehortea pasatzen. Azkenik, jabetu ziren zer garrantzitsuak ziren nekazaritza eta abeltzaintza, nekazaritza, inguruan edukitzea askoz ere erosoagoa egiten zitzaielako, eta abeltzaintza, ez zituztelako animalitik datozen elikagailik edukiko.



ZER GERTATUKO LIZATEKE ANIMALIAK DESAGERTUKO BALIRA

-Bazen behin, historiaurrean, k.a. 600. urtean, herri bat, herriaren izena Zalduiri zen. Erreka baten ondoan zegoen herrixka, lastozko etxeekin. Herrixkan 4-5 familia inguru bizi ziren, horietako bat Arritxu abizenekoak ziren, aita Luken zen, ama: Malen zen, seme txikia: Ekain eta alabaren izena Nara zen. Narak I2 urte zituen. Animaliak izugarri gustatzen zitzaizkion, horregatik goizero jaten ematen zien eta beraiekin orduak eta orduak pasatzen zituen. Bereziki ahuntz batekin erlazio estua zuen, bere izena Luma zen. Egunero egoten zen beraiekin, egun bakar batean hutsik egin gabe. Bitartean herrikoak arropa, ehizatzen, harriari forma ematen eta abar ibiltzen ziren baina Nara ez, bera beti animaliekin zegoen eta ematen zuen ulertu egiten ziela, hau da izugarrizko kasua egiten zielako.

Narak bazeraman egun batzuk animaliak pixka bat arraro ikusten, kearen usainagatik zela pentsatu zuen, baina normala zela pentsatu zuen. Egun hartan,Lumak izugarrizko besarkada eman zion. Nara ohera joan zen, pixka bat harrituta, baina pozik, Lumak emandako besarkadaren ondorioz. Urrengo eguneko goiza eguzkitsua zen eta Nara pozik altxatu zen, animaliei jana prestatu eta kanpora atera zen. Orduan animaliak ez zeudela konturatu zen, oso harrituta aitari abixatu zion. Ordu batzuk geroago herri osoa kontuturatu zen eta mendietatik bilatzen hasi ziren, baina ez ziren agertu, ezta animalia basatiak ere. Dena ondo begiratu zuten, leku bat izan ezik, oso

arriskutsua zelako, bide estuak eta amildegi handiekin.

Nara oso triste zegoen, animaliak faltan botatzen zituelako eta herrikoek bizirik irauteko haragia behar zutelako, gosez hiltzen zeuden. Egun batzuk itxarotea pentsatuz zuten, animaliak etorriko zirela pentsatuz, baina ez zen hala izan. Orduan Narak desesperatuta, bere amonak esandakoa gogoratu zuen: “animaliak desagertzen direnean mendiko izpiritu handiari jarraitzen dioten, normalean kearen usainari hies egiten. Ausarta denak bakarrik ekar ditzake” Leku hura arriskutsua zena zen baina bi aldiz pentsatu gabe gau hartan gauzak prestatu eta amonak egun hartan koba batean marraztutakoa gogoratu zuen. Etxolatik hies egin zuen eta koba hartatik pasatu zen irudia ondo gogoratzeko pare bat minutu egon zen irudia ondo barneratzeko eta mendira abiatu zen.

Gurasoek asko maite ez zutenez ez ziren konturatu Nara falta zenik eta amonak ez zuen ezer esan, lortuko zuela argi zuelako. Narak hiru egun behar izan zituen iristeko, beldur handia pasatu zuen bidean baina animaliak ikusterakoan beldur guztiak joan zitzaizkion, eta Lumak izugarrizko ebesarkada eman zion. Orduan etxolako animaliek, besteei abisatu zien Nararekin joanez ez zirela galduko eta ondo iritsiko zirela. Une horretan Narak hankan min handia sentitu zuen eta apurtuta zuela konturatu zen. Lumak hori jakindakoan bisonte bati deitu eta bere bizkarrean igo zen. Horrela herriraino jaistea lortu zuten.

Herritarrek Nara eta gainontzeko animaliak ikusterakoan asko eskertu zioten, horrela herriko pertsonarik garrantzitsuen izan zen eta norbaitek animaliekin
arazoak zien. “ Hala bazan edo ez bazan sar dadila Zalduriko plazan.



ZER GERTATUKO LITZATEKE ERROMATAR IMPERIOA EZ BALITZ ERORIKO?

Lydia Zumarraga Dowling

K.O 479

Orain dela 1546 urte inguru Erromatar Imperioan Livia izenezko 25 urteko emakume bat bizi zen. Livia oso neska jatorra eta maitea zen. Liviari irakurtzean gustatzen zitzaion eta idazlari bat izan nahi zuen. Baina Livia emakumea zenez hori ez zen posible

Egun baten Liviarn aitak esan zion: Livia aste baten 26 urte egingo dituzu eta ordurako ezkonduta egon behar zara.
Hortaz senarra bat aukeratu dizugu.
-Zer?! Hori ez da bidezkoa!! Erantzun zion Liviak.

Livia hori Entzunda etxetik korrika eta negarrez atera zen kalera. Livia hain triste eta haserre zegoela gizon baten aurka jo zen nahigabe. Gizon horren izena Marcus zen. Marcusek Livia negarrez ikusita lagundu egin zion. Livia lasaitutakon hitz egiten hasi ziren. Liviak esan zion bere egoera zein zen eta Marcusek esan zion bera emperadorearn semea zela eta ez ziotela jauregitik irtetzen uzten. Orduan, jauregitik ihes egin zuela kontatu zion.

Liviak eta Marcus egunero gelditzen hasi ziren. Lau egun eta gero maitemindu egin ziren. Emperadorea (Marcusen aita)mjakin zuenean Marcus jauregitik ihes egiten ari zela neska bat ikusteko zigor bezala gerrara joan behar zen.

Hurrengo egunean Marcusek esan zion Liviari bere zigorra zein zen. Liviak ere gogorazi zion bi egunetan ezkondo egin behar zela. Biek plan bat egin zuten: gaueko hamabietan Erromatar Imperiotik alde egingo zuten.

Gaueko hamaika terdik jo zuten hirikio elizen kampainek, Liviaren gurasok ohera joan zirela aprobetsatu zuen telazko poltas bat bere gauzez betetzeko.

Elizako kampainak hamabiak jo zuten. Livia eta Marcus hiriko zelai batetik zaldi bat hartu zuten. Irtetzekon jauregiko soldad batek abisua eman zuen Marcus ihes egin zuela eta hiriko bide guztiak itxi zituzten. Soldadu batzuk Marcus eta Livia non zeuden jakinarazi zirenean lantza batzuk bota zituzten, horietako batek Liviari emanez eta bere bizitza bukatuz Marcusek hori ikusita lurrean zegoen lantza bat bihotzean iltzatu zuen bere bizitzari amailera bat ematen.

Lydia Zumarraga Dowling

KOMIKIAK


Bazen behin, Aro Modernoko XVIII. mendean, Sestaon, familia xume bat; bi alaba zituzten: Ainhoa eta Lur.



Haien gurasoak nekazariak ziren



Ainhoak etxeko lan gehiak egiten zituen begeen ondorioz.



Mmm Ondo da

Lur gurasoei eta gizarte osoari begira beharrezkoa dela uste du!






Erregeek bakarrik zuten kalitatezko bizi bat, eta bereiek ez zuten iritzi horrekin pentsatzen



Zaldi batekin barku bat hartu zuten



Iritsi zirenean konturatu ziren arropa desegokia zutela eta gizon bati kendu zioten arropa




Ainhoak jostorratz batekin bi soineko dotore josi zituen.



Jendeari galdetzen ibili ziren eta herritar asko jarri ziren ados.



Herriak erabakia hartu zuen.



Nork esango zuen? Bi neskatilak gizarte osoa hobetu zuteko



K.a 6.000-garren urtean leherte bat egon zen.



Peterrek ideia bat eduki zuen behin.



Animaliak harrapatu zituzten eta besteengana joan ziren esatera.




Trukeak egiten hasi ziren egurrezko tresnen ordez. baina ikusi zuten zerbait hobea behar zutela.



Gallarek, tribuko txikienak "Burnia" sortu zuen.



Ordutik aurrera pozik bizi izan ziren burniarekin gauza berriak probatuz.



Lydia & Lucía


479K.O
ORAIN DELA 1546 URTE INGURU LIVIA IZENEKO NESKA BAT BIZI ZEN, 25 URTE ZITUENA. JAINKOA ETA MAITEA ZEN. BAINA LIVIA, NESKA EZIN ZUEN ORAINARAIA IZAN BERAK NAHI ZUEN BEZALA.
BAINA EGON BATEAN AITAK, HASERRETU EGIN ZUEN GAUZ BATEGAN ZION.
26 URTE BETETZEAKON EZKONDUTA EGON BEHARKO ZARA.
HORI EZ DA BIDEZKOA!!
ORDUAN, LIVIAK ETXETIK IHES EGIN ZUEN.
BAT BATEAN...
3. KATAPUN!
BARKATU
MARKUS ELPERADOREAREN SEMEA ZEN.
4 EGUN GELDITU ZIREN, POLIKI-POLIKI MAITEMINDU ZIREN.

Lydia & Lucía

BAINA, EGUN BATEAN, ENPERADOREA (MARKUSEN AITA) KONTURATU EGIN ZEN, HASERREAK ETA ZIGOR BEZELA MARKUS NORVEGIA KONTRAKO GERRARA JOATEA AGINDU ZION.





HURRENGO EGUNEAN TXARRA EGIN ZION LUZIARI, ETA BERAK 2 EGUN BARRU EGUNDU BEHARKO ZELA.



ORDUAN HIRIKO BASERRI BATEAK ZALDI BAT LAPURTU ZUEN



ETA PLAN BAT SORTU ZUTEN: GAUEKO 12etan IHES EGITEA.



BAINA HIRITIK IRTEN BAINO LEHEN MARKUSEN AITA KONTURATU ZEN.
















1337, Erdi Aroa
Ez dugu alimenturik eta behar handietan gaude
elikaga
Lesai Enrique Galo erreinuak alimentu asko dituela jakin dugu!
Orduan ez dago beste aukerarik Galo erreinua konkistatzea
Nolatan zaude hemen Carlos?
Galo erreinua
Gatazkarre!!!
Zuen nahi bardinarekin gaude. Alimentuak behar ditugu eta ez dugu ezer hori lortzeko.
Gure soldaduak gerra nahi dute.
Ba orduan gerra egonga, dirauten duenak erreinuaren alimentuen mende izango da!
Urte bat gerran egon eta gero...
RIP
Kaixo, Carlos
Kaixo Enrique
Gaur azken eguna izan behar du. Alimentuak bai ala bai behar ditugu
Bai, guk ere eta gainera gure soldaduak hiltzen ari dira.
Orduan gaur irabazten duenak Galo erreinuaren mende izango da!
Bai, hori da!
Guk irabaziko dugu!
Ez, guk!

Ordluak barrokan egon eta gero...

Purrrr!





Gure soldaduak hiltzen ari dira eta alimentuak bai ala bai behar ditugu, zer iruditzen zaizu Gelo egreinua bilatzeat hartzen badugu?




Bai onda iruditzen zait. Niresoldaduak erehitzeinari dira. Orain gaazen dena abisatzera!!!



Eroli aroa, gerren aroa izan zen eta ez zen batere normala bi herrialde beraien artean laguntzea. Baina Fratziak eta Inglaterrak lortu zuten. Hau Europa guztiak zabaldu zen eta Europearrek beraien artean laguntzen dena hobeto joango zela konturatu ziren eta gerra guztiak hamaitta egin ziren.

amaitu



Azkenean kontinente ~~guztien artean lagundu~~ egin ziren!!!

guztiek elkar lagundu zuten

Gerrahori "MUNDUA ALDATU ZUEN GERRA" deituko diogu!

